ESPEDIENTE MOTA: ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA
Kontratua: Zerbitzu kontratua, prozedura ireki oso sinplifikatua.
Espediente zenbakia: KON_IOS_0022

ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK
PROZEDURA IREKI OSO SINPLIFIKATU BIDEZKO ESLEIPENA

1.XEDEA:
Bermeoko euskara balioan jartzeko egitasmoa lantzeko zerbitzua ematea.

2. EGITASMOAREN JUSTIFIKAZIOA:
Udalaren Agintaldi Planak (2020-2023) jasotzen duenez, Bermeoko herritarren euskararen gaitasunaren eta erabileraren artean dagoen aldea murrizteko, herritarrak ahalduntzeko eta erabilerari eta hizkuntza ohiturak euskararen alde jartzeko, ekintza plana diseinatu beharra dago. Ekintza plan hori Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren osagarria da eta hainbat ekimen hartuko ditu bere baitan.

Euskararen Plan Estrategikoak (2018-2023) jasotzen du ekintzak antolatuko direla Bermeoko euskarari indarra eta prestigioa emateko, sustraiak eta identitatea balioan jarriz, eta esku artean darabilgun egitasmo hau, bat dator asmo horrekin.

Ondoren deskribatuko diren lanak egituratzeko, beharrezkoa da laguntza eta aholkularitza teknikoa kontratatzea.

Enpresa esleipendunak Udaleko Euskara Sailaren koordinazio eta zuzendaritzapean garatuko ditu lanak eta behar den guztietan izango dira harremanak, birtualak, telefonoz zein aurrez aurre, proiektua behar den moduan bideratuko dela bermatzeko.

Horiek denak gogoan izanda, agiri honetan zehaztutakoaren arabera egituratu behar du bere lan proposamena kontratazio-prozedura honetan parte hartu gura duenak.

3. LORTU GURA DIREN HELBURUAK:
3.1- Bermeoko hizkera prestigiatzeaz gain, Bermeoren identitatea eta kultura zabaldu eta transmisioa indartu: Ekimenaren jasotzaileak Bermeoko aldaeraren aberastasunaz eta balioaz jabearaztea gura da, norberaren euskararekiko harrotasuna.
3.2- Erabilerarako motibazioa sustatu: herritarrei identitatea ematen dion hizkerak eguneroko bizitzarako baliagarritasuna agerian utzi.
3.3- Erabilera apalen duten adin taldeetan eragin.

CSV: 07E60008748E00Y0A9K4J2B9T8

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008748E00Y0A9K4J2B9T8

Sinadurea eta datea
AITZIBER GABIKAETXEBARRIA GOIKOETXEA - 12/01/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/01/2022 12:08:32

EXPEDIENTE :: 2021KON_IOS_0022
Datea: 20/12/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

3.4- Bermeoko edo Euskal Herriko jatorria dutenentzat eta jatorria beste kultura batzuetatik etorritakoentzat baliagarri izan.
3.5- Belaunaldi berriek Bermeoko hizkera eurenganatu eta erabili.

4. EZAUGARRI HAUEK IZANGO DIRA KONTUAN PROIEKTUAN:

4.1- Izaera ludikoa duten ekintzak izatea, parte hartzea era atsegin batean bilatuko da.
4.2- Zerbait dinamikoa eta parte hartzeko gogoa emango duena.
4.3- Euskara balio positiboekin lotu, identitatearekin lotura egingo duena.
4.4- Baliabide pedagogiko gisa erabiltzeko modukoa izatea, irakaskuntza arautuan zein euskararen ikaskuntzan.
4.5- Teknologia berriak eta aurrez aurreko jarduna uztartuko ditu ekimenak.
4.6- Bizia izango da, gaurkotasuna duten gaiekin osotu eta aberastekoa.
4.7- Herriko kultura, ohiturak, jaiak, jakingarriak… zabaltzeko balio behar du.
4.8- Betiko berbak gaur egungo adietara ekarri.
4.9- Irudietan eta testuetan arlo hauek kontuan izan: ingurumena, berdintasuna, hizkera ez sexista, kultura artekotasuna eta aniztasuna, animalien ongizatea eta naturarekiko errespetua.

5. JASOTZAILEAK

5.1- Gaztetxoentzako lehiaketa 10 eta 15 urte bitartekoei zuzenduta egongo da.
5.2- Helduentzako lehiaketa, berriz, adin horretatik aurrerako herritarrei zuzenduko zaie.

6. PROIEKTUAREN ATALAK:

6.1- **Lehiaketak garatzea:** Lehiaketak era birtualean plataformaren bidez egingo dira. Lehiaketaren diseinua, arauak eta jokatzeko modua enpresa esleipendunak proposatuko dizkio udalari. Aurrez aurreko finalak antolatzeko lanetan aholkularitza emango du eta final horiek behar bezala garatuko direla bermatzeko baita laguntza teknikoa ere.
6.2- **Marka eta leloa** landu: Leloak bat etorri behar du lehiaketaren mamiarekin eta zentzuarekin, erraz identifikatuko da lehiaketarekin eta Bermeorekin, erraz ahoskatu eta deklinatzeko modukoa izango da.
6.3- **Bideo-pilulak** sortuko dira galderetako edukiekin zerikusia dutenak. Modu desberdinetan zabalduko zaizkie herritarrei, hala nola, tokiko hedabideen bitartez, sare sozialen bitartez, Euskara Sailaren web gunearen bitartez, udalerriko zinearen bitartez.
6.4- **Lehiaketetarako plataforma:** Lehiaketak egiteko plataforma gisa web gune progresibo baten definizioa eta teknologia garatuko du enpresa esleipendunak.
6.5- **Komunikazio-lana**: tokiko hedabide eta sare sozialetan zabalduko denaren planifikazioa egin beharko da.

CSV: 07E60008748E00Y0A9K4J2B9T8

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008748E00Y0A9K4J2B9T8

Sinadurea eta datea
AITZIBER GABIKAETXEBARRIA GOIKOETXEA - 12/01/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/01/2022 12:08:32

EXPEDIENTE :: 2021KON_IOS_0022
Datea: 20/12/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

6.6- Udalak bilduta duen **materiala egokitzeko** eta gaurkotzeko lana Udalak antolatuko du herritar talde esanguratsu batekin elkarlanean.

6.7- **Babesletzak** lortzeko aholkularitza emango zaio udalari.

7. PROIEKTUA KUDEATZEKO BALIABIDE TEKNIKOAREN GUTXIENEKO EZAUGARRIAK

7.1- Kudeatzeko erabiliko den baliabideak, plataforma orotan erabiltzeko aukera eskaini behar du. Hau da, Android, IOS eta web plataforma bitartez parte hartzeko aukera eskainiko du gutxienez.

7.2- Baliabidea dohainekoa izango da, bai egitasmoaren kudeatzailearentzako (kontratuaren esleipenduna eta kontratua bukatzean Udala) eta baita parte-hartzaileentzako, APP Store eta Google Play plataformetan eskuragarri egongo den APP bitartez.

7.3- Bermeoko euskara balioan jartzeko egitasmoa kudeatzeko erabiliko den baliabideak web bitartez galdera sortak sortzeko aukera eskainiko du inolako kopuru mugarik gabe eta kudeatzaileak nahi duen momentuan joko-txapelketak argitaratu eta abian jartzeko aukera izango du.

7.4- Behin lehiaketak hasita, baliabideak galdera bakoitzeko puntuazioa eskaintzeko aukera izango du. Kudeatzaileak aukeratuko du puntuazio horren banaketa, baina baliabideak erantzun zuzen eta arinenari puntuazio altuena automatikoki emateko aukera eskainiko du.

7.5- Egitasmoa bukatutakoan, emaitzak Excel edo bateragarria den formatu batera esportatzeko aukera eskainiko du.

8. HIZKUNTZA ALDETIK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

8.1- Kontratua eta hari lotutako dokumentu guztiak euskaraz idatzita egongo dira, bai Udalaren aldetik, baita enpresa esleipendunaren aldetik ere.

8.2- Ahozko harremanak euskaraz izango dira.

8.3- Enpresa esleipendunak lana osorik euskaraz garatuko du eta horretarako kontratuaren xedea diren lanetan parte hartuko duten langileek behar besteko euskara-gaitasuna dutela frogatu beharko dute, gutxienez, C1 edo baliokide den agiri bidez frogatuta.

8.4- Plataforma digitalaren bitartez erabiltzaileek ikusiko dituzten era guztietako idatzizko edukiak zein mezuak euskaraz egongo dira.

8.5- Antolatuko diren lehiaketak eta horiei lotutako komunikazio-ekintza guztiak euskaraz izango dira.

CSV: 07E60008748E00Y0A9K4J2B9T8

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E60008748E00Y0A9K4J2B9T8

Sinadurea eta datea
AITZIBER GABIKAETXEBARRIA GOIKOETXEA - 12/01/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/01/2022 12:08:32

EXPEDIENTE :: 2021KON_IOS_0022
Datea: 20/12/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia